



**ATZEGI**

BABES FUNDAZIOA

# **2019 MEMORIA**

## **ATZEGI BABES FUNDAZIOA**



**Okendo kalea, 6 behea. 20004 DONOSTIA.**

**☎ Telefonoa 943 42 39 42**

**fundaciontutelar@atzegi.eus**

**www.atzegibabesfundazioa.eus**

## ATZEGI BABES FUNDAZIOA

### «*Babestuko zaituen norbait izatearen garrantzia*»

Duela **36 urte** sortutako irabazi asmorik gabeko erakunde juridikoa da fundazioa eta misio Nagusia, familia eta gizartearen aurrean egoera babesgabean dauden eta ez gaitasun intelektuala duten pertsona helduen tutoretza gauzatzea da.

Babes egoera edo tutoretzaren onarpena, azken aukera edo alternatiba gisa ulertzen du Fundazioak, eta pertsona fisiko egokia aurkitu ez izanaren ondorioa behar du izan.

Tutoretza, epaileak hartzen duen erabaki bat da, eta Jarduteko Gaitasunaren Aldaketaren prozesuaren ostean ezartzen du. **Epaileak horretarako, babestua izango den pertsonak, zein behar dituen eta zertarako behar dituen erabaki behar du. Behar hauek beti, babestutako pertsonaren beharrekiko proportzionalak izango dira.** Ondasunen eta bizitzako erabaki garrantzitsuenen inguruan babesa sentitzea eta laguntzea du helburu tutoretzak.

Talde lanean egiten dugu lan, malgutasunez, sormenez, gardentasun osoz, ausardiaz eta zuhurtzia osoz, baina batik bat, beti, gertutasunez eta konfiantza osoz.


**“Babestua izango den pertsona da beti garrantzitsuena”**




## DATUAK

2019an zehar, 153 pertsona artatu ditugu, eta urte honetan zehar, heriotzagatikako 2 baja izan ditugu.

BABESTUTAKO PERTSONAK  
ADINAREN ARABERA



BABESTUTAKO PERTSONAK  
SEXUAREN ARABERA



Aipatzekoa da, 2019an zehar 23 pertsona baloratu ditugula eta aldi berean, babestuak izan daitezkeen pertsona hauen bizitza ibilbidean zehar laguntzak eskaintzen hasia dela dagoeneko *Atzegi Babes Fundazioa*. 23 pertsona hauetatik 13, 45 urtez azpikoak dira eta desgaitasun intelektualaz gain, nahasmendu mentalaren diagnostikoa dute, diagnostiko bikoitza beraz.

Babestutako pertsonen eskualdekako mapan kokatuta, horrela geratuko litzateke:



**GIPUZKOA**  
Municipios y comarcas  
Udalerrí eta eskualdeak

**BAJO DEBA/  
DEBABARRENA**

**21**

**ALTO DEBA/  
DEBAGOIENA**

**10**

**UROLA KOSTA**

**BAJO BIDASOA/  
BIDASOA BEHEREA**

**12**

**DONOSTIALDEA**



**67**

**TOLOSALDEA**

**23**

**GOIERRI**

**20**



**“Ni falta naizenean, nor arduratuko da nire seme-alabez?”**



Erantzuna sinplea da:

*“Momentu edo egoera hori iristean, desgaitasuna duen pertsona egoera babesgabean aurkitzen bada, Fundazioak, epaitegiak proposatutako seme/alabaren kasua onartuko du, bizi-kalitatea bermatuz, beti.”*

Dagoeneko 28 familiek dute sinatuta etorkizuneko konpromisoa. 2019an zehar, 2 konpromiso berri sinatu ditugu, etorkizunean babesa beharko duten pertsonen laguntza emateko asmoz.

**Etorkizuna ezin da une batetik bestera prestatu. Etorkizuna egunerokoan prestatu behar da, orainaldian. Egoera onartu eta ezgaitasun intelektuala duen pertsonaren autonomia eta gaitasunak estimulatuz eta potentzializatuz prestatu behar da.**



**«Arantzazu programaren» sendotze eta finkatzea:**

## **BABESTUAK DIREN PERTSONA BERRIEN, HARRERA LAN TALDEA**

2017ko ekainean sortu zen *Babestuak diren pertsona berrien harrera lan taldea*, desgaitasun intelektuala duten eta Fundazioak laguntzen dien pertsonen harrera egiteko asmoz. Horrela, babestuak izango diren pertsona berriei informatu eta gidatzearen ardura hartzen du lan talde honek, hauek Fundazioarekin duten esperientzia azalduz. Topaketa honetara, beraien bizi prozesuan babestuak izango diren 4 pertsona hurbildu ziren.

Zarautzen, maiatzeko asteburu bat igaro genuen aterpetxe batean, babestutako pertsonak, boluntario, profesional eta Fundazioko zuzendaritza batzordeko kideekin batera, babestuak izango diren pertsona berrien harrera prozesuak eratzten.

## VOLUNTARIADO TUTELAR



Fundazioaren lan metodologiaren baitan dago Babes Boluntarioen parte hartzea.

Babes boluntarioek, aktiboki parte hartzen dute Fundazioaren misioan, tutelatutako pertsonarekin duten harreman pertsonal eta estuagatik.

Boluntarioek, tutelatutako pertsonen gaitasunetan eragin eta ongizate afektibo-emozionalak potentzializatzen eragiten dute, konpromiso etiko eta solidarioak bultzatuta.

Bi pertsonen arteko harremanak, babes eta laguntza naturalak hobetzen ditu, ezgaitasuna duten pertsonen bizi kalitatea hobetzeaz gain. Profesional ezberdinekin (tekniko, lankide, pisukide...) izan ditzaketen harremanez haratago, harreman sozial esanguratsuak sortzen dira, adinarekin eta gustu eta behar antzekoak izan ditzaketen planak eta nahiak elkarbanatuz.

2019an Euskadiko Kutxa-Laboral Kutxaren lankidetzan izan dugu. Boluntariotza proiektuaren garapenean lagundu gaitu eta honi esker, 5 Babes Boluntario berri batu dira *Atzegi Babes Fundazioaren* proiektura.

**Gainera, Espainiako Babes Fundazioen elkarteak, Sevillako Estatu mailako Babes Boluntarioen topaketa antolatu du aurtengoan. Bertn parte hartu du Atzegi Babes Fundazioak ere, profesional bat, babes boluntario bat eta babestutako pertsona batekin batera.**



**Babes Boluntarioen taldea, 44 pertsonez osatua dago.**

**Hauetariko 36, emakumean dira eta 8 gizonezkoak.**



## **FORMAZIOA**

### **Babes Fundazioko lan taldeak, egindako formazio eta ikastaroak**

Babestuak diren pertsona hauei laguntzarik efizienteena eta onena emate

Siguiendo nuestro objetivo de poder ofrecer nuestros apoyos de la manera más eficiente posible, el equipo de profesionales y de patronos/as de la Fundación ha participado en varias jornadas de formación entre las que destacamos:

- *“Desgaitasun intelektuala duten pertsonak justiziarako duten sarbide aukeren”* inguruko hitzaldia, Donostian ospatutakoa.
- Sevillan ospatutako Babes Boluntarioen Estatu mailako topaketa.
- Donostian ospatutako *“Garapen eta Desgaitasun Intelektuala duten pertsonak, ohiko testuinguruetan”* jardunaldia.





- Madrilen ospatutako, *“Tutela Eredu ezberdinen jardunaldia”* AEFTren eskutik.
- Sexualitate eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen 1. Kongresu Estatala, Kanariar irletan ospatutakoa.
- *“Duintasuna eraikitzen, babestuaren artelana”*, hitzaldia, Donostian ospatutakoa.
- Donostian egindako oinarritzko *“Microsoft Excel”* ikastaroa.
- Plena Inclusión Euskadik sustatutako *“Erabateko parte hartzea”* ikastaroa.
- Bilbon egindako ikastaroa *“Desgaitasun intelektuala duten pertsonen laguntze etikoa zahartzaroan”*.

**Hobetze jarraia lortzeko asmoz eta helburuz, 2019an zehar, kontabilitate arloan lana egiteko tekniko berri bat sartu da lan taldean. Horretaz gain, erraminta ofimatiko berri bat txertatu dugu Fundazioan eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanak sendotu ditugu, baita *Atzegi, Gautena, Aspace, Fundación Goyeneche, Gureak* bezalako elkarteekin eta Gipuzkoako udalerrri ezberdinetako Gizarte Zerbitzuekin ere.**